



AITOR MADRID



MARKEL ARIZAGA

ORDENAGAILUAN LIBRE

Aurten LH5 maila burutzen diharduten haurrak ordenagailu eramangarri bana erabiltzen hasi dira institutu batzuetan. Ubuntu eta Windows sistema eragiliak dauke ordenagailuek. Hola, Windowsekin edo Ubunturekin abiaraziko dittue.

Jaurlaritzak Billy Gatesi 740.000 euro lizentziatan ordainduko dotsaz Windowsa makina hauean erabili ahal izateko. Ez da gauza hutsala dirutza hau ordaintzia bizi dogun krisi garai honetan. Ekonomikoki kritikagarria da jakina, eta gainera Ubuntu programa libria badauke zertara dator Windowsa instalatuta eukitzia? Keinu txikixegia da Software libriaren alde. Honen erabilpenak abantaila asko dakarzelako: Batetik ekonomikuak, duan diralako progamak edo oso merke, bestetik softwarearen ezaugarriak aldatu leikez publiko eginaz danon honerako izanik, programaren nahi beste kopia egin leikez eta azkenik, ezaugarriak aldatuz norberaren bihar izanetara egokitu leike.

Markel, ez dozu uste haundixa dala Gates jaunaren programekiko dogun morrontzia? Eskuak lotuta dakaguz ixa. Ez da bat be harritzekua tipo hau munduko gizaseme aberatse-na izatia. Programa librien erabilera sano eta konplejurik barikua da bidia, baina pauso hau emoteko beldurra ikusten dot daguala. ☞

“

Jaurlaritzak Billy Gatesi 740.000 euro lizentziatan ordainduko dotsaz

Aitor Madrid

Neurri hau gobernutik sortua izan da teknologixa barrixak bultzatzeko

Markel Arizaga

”

Neurri hau Aitor, gobernutik sortua izan da, antza danez gizartian teknologixa barrixak bultzatzeko intenziuakin. Ointxe betiko gai polemikuan sartzen gara: Microsoft moduko enpresa baten produktuean dirutza bat gastatu edo tresna oso antzekuak eskaintzen

doskuzen programa askiak erabili? Koxka gai ekonomikua da. Argi eta garbi geratzen da software askia askoz merkiagua dala, ixa %100 merkiagua.

Baina, ze ondorio dakar enpresa pribatu baten produktuak erabiltziak? Zuk zeuk esan dozu, morroitza. Gaur enpresa horrek eskaintzen doskun produktua bixar baleike ez existitzia, besterik barik errentagarria suertatzen ez jakolako. Emaitza: LH5 mailako gaztiak balixorik ez daukan produktu batekin geratu leikez eta Jaurlaritzak sekulako dirutzia zakarrontzira botata. Hau software askiakin ez da inoiz gertatuko, produktuak ez darelako enpresa baten menpe baizik eta edozeinen eskutan.

Badakizu zer? Hemendik aurrera gaztiekin Ubuntu deitzen dan zeoze daguala jakingo dabe, eta hau da nere ustez software askiari falta jakona, kaleko jentia beran existentzian berri izatia. Hortik aurrera, gitxienez software askiak aurrera egiteko aukera bat eukiko dau, gaur egun ez daukana. ☞

Goguan hartzeko

“Aurrera begiratzen ez duena, atzean dago”

Librezale.org



GUTUNAK

Kaixo lagunok

Beste behin Maltzagako bidegurutze zaharra dakartzet aztergai. Aspaldi hain ospetsuak izan ziren erromeriak, kantina, Ilargi taberna eta abar hain zuzen ere. Bertan, Eibarko, Sorraluzeko eta Elgoibarko hainbat bikote elkartu ziren, San Rafael zen eta elkartzeko ziorionsuen patroia.

Donostia, Bilbo eta Gasteiz elkartzeko dituen komunikazio puntu hau gaur egun egoera tamalgarrian dago. Instituzioen axolagabekeriagatik, apurtuta eta zikinkeriaz beteta dago autobus geltokia.

Egun geratzen garen biztanleetako bat naiz eta dei bat egin nahi diet bertako instituzioetako arduradunei, arren, auzo hau itxuratu dezaten. Eta bereziki, Eliza katolikoari, izan genuen ermita berrieraiki edota auzoan hildakoen omenez zerbait eraiki dezan. Datorren urriaren 24an, San Rafael egunean Maltzagara hurbiltzen direnentzat harriera berezi bat antolatu dugu, nahiz eta umila izan. Diana, salda eta ardoa izango da denentzat eta jarraian auzoan hildakoen arimen aldeko otoitza egingo dugu. Besterik gabe, jaso ezazue zuen auzokidearen agurra.

MIGUEL MOYUA

ZATOZ DANTZARA!!

2009-2010 ikasturtean, azarotik ekainera, dantza ikastaroak emango ditugu.

Astero lagun artean elkarrekin dantzan egiteko aukera izango dugu.

Fandangoa, arin-arina, polkak, zortzikoa, muttikoak, banakua, soka dantza, larrain dantza...

**2009ko AZAROTIK 2010eko EKAINERA
ASTERO ORDUBETE ETA ERDIKO ESOLAK**

Urrats dantza taldea
Informazio gehiagorako: 605752533 edo urratsdantza@gmail.com

urriaren 30ean aurkezpen kalejira! Dantza poteoa iluntziko 7etan Plaza Barritik hasita.

ZUZENKETA

Ohar honen bitartez adierazi nahi dugu Pil-pileaneko 206. aleko Zer Berri atalean, margoketen inguruko informazioa ez zela zuzena. Agertu ziren pintadak, hau zioten zehazki: "PSOE=GAL", "Non dago Jon?".

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Sorraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORRALUZE UDALA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

bittartetik



Alex Gartzia

Ahotsak

Jardunian, berez ikasteko bidea beti egon arren, norbera baino zaharragarekin adi egotia komeni da eta zaharedo adinduekin zer esanik ez. "Oroitzapenik gabe jakintzarik ez" ei dago eta sarri lana emon arren sinistu egin bihar beren egi, aitortza, kontu eta iragarpen gordinak. Ze ez dabe bizi izan ba!

Inguruan elkarte bateko gaztiak egindako lanari esker, gure nagusiekin berbaldi mordo bat jasota dago grabazio bittartez. Aberastasunez, umorez eta sorpresaz josittako lan hori interneten ikusgai, galtziar daguanetik ur trago freskua suertau leike. Neurtu ezindako baloria ez al dauka?

Jakinekua dana, denboria pasatu ahala, askok sekula ikusi be egin ezingo doguna bere bizipen eta bizimodu izan dabena jua egingo dirala mundu honetatik. Atsegin haundiz bere ahotsa eta gogoetak danori hor laga eta eskerrak merezitxa jua diranen moduan.

Batek, bera komeni baino 60 urte lehenago jaixo zala irrifarez diñuan arren, bizimodua zela aldatu dan ikusi eta aldatzeko hain gogor lan egin zebenezengandik, badauka ondiok historiak danondako zer jaso.

Nundik sortu da bazkari begetarianuak egiteko ideia?

Egixa esan ez dauka misterio haundirik; lagun artian sortu zan. Harremanak egiteko beste modu bat da eta afari begetarianua, elikatze eta sukaldatzeko beste aukera bat da. Okelaz gain aukera asko dare, oso zabalak gainera! Taldeko kide gehixenak Gaztetxia okelaz libre dagan gunia dala pentsatzen dogu.

Zertarako?

Zer jaten dogun jakiteko, hori garalako. Zer sortzen dogun ikustia, hori daukagulako. Gure nahixa, produktuak lantzen ikastia da azken finian, guk sortzia!

Afalostiak be goxuak dozuez...

Afari begetarianuetan gure artian gustura egotiaz gain, bestelako eskaintza bat emotia nahi genduan; afal osteko tertuliak, antzerkixa, poesia errezitaldiak, ipuin kontalarixak... eta zela ez, musikia! Baina la-saixagua, digestinuari lagun-tzeko.

Gertukuak eta freskuak, ezta?

Guk gertatuko dogun jana herriko denda txikixetan erosiko dogu, herriko basarritarreri eta sasoiari sasoiak kontsumitzen saiatuko gara. Gertuen geratzen jakuzen janak erosi-kottugu. Hau uste dogu dala ahora zer eramaten dogun jaktian garantixarik onena. Beste

Bazkari begetarianuak gaztetxian

alde batetik, gure eskaintzan barruan etxian egindako garagar-dua dago. Txurruka jatetxian lagun batek egiten daben garagardo ederra!

Zeinendako manjar horrek?

Orokorrian jende gaztiari zuzendutako afarixak dira baina norberak ikusiko dau. Guk janari gozua eta konpainia ezin hobia eskaintzen dogu eta ostantzekua etortzen diranen esku!

Zein iritzi daukazue gaur egun kontsumitzen dittugun produktuez?

Hau da hau galdera sakona! Ez dakigu askotan zer saltzen doskuen, eta zer jaten dogun! Janarixan merkatua interes ekonomikuak mobitzen dau. Dana moduan azkenian, baina honen ondorixuak zuzenian egiten doskue kalte, kontsumitzen dittugun produktu asko kakaz beteta egoten dira eta! Gogoratu bihar dogu jaten doguna garala! ☞

Jaten doguna gara!



ELIZPE Hortz Klinika
GURE ZERBITZUAK
Ortodontzia ikustezina
Implanteak

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORRALUZE • Tel. 943 75 25 67

HÑOS. BENITO ANAIK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe


T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORRALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Hogeita hamasei ikaslek eman dute izena AEKn

Ikasturte berrian hogeita hamasei lagunek aukeratu dute euskara ikastea AEK euskaltegian. Astelehenetik eguenera bitartean eskaintzen dituzte klaseak, hiru ordutegi ezberdinetan. Goizean 9:00etik 11:00ak arte,

eguerdian 14:30etik 17:00etara eta iluntzeko 19:00etatik 21:00etara bitartean. Izena ematea nahi duenak lehenbailehen egin dezala eskatu dute irakasleek, **943 75 14 34** telefonoan. Helduentzako Hezkuntza Iraunkorrean (EPAn) berriz, hamar lagunek aukeratu dute euskara ikastea.

Berbalaguna, euskaraz egiteko aukera

Euskara hobetu nahi duten euskaldun berriei horretarako aukera eskaini nahi die Berbalaguna egitasmoak, euskaraz ondo dakitenak hobetu nahi dutenekin batu eta berba eginez. Matrikularioa zabalik dago eta Pil-pilean, AEK, EPA edo Udaletxera jo daiteke izena ematera. 

AEKko ikasleak klasea jasotzen



Herriko baserritar gazteak martxan

Akuilu taldeak antolatutako duen baserritar gazteen martxarekin bat egin dute herriko baserritar gazteek. Martxa urriaren 23, 24 eta 25ean egingo da eta Akuilukoek deialdi zabal bat egin dute hilaren 24ean goizeko 12:00etan Eibarren egingo den manifestazio nazionalera joateko.



"Soraluzeko Ahotsak" proiektua 2010era arte martxan

Hilaren 6an Soraluzeko Udalak eta Badihardugu Euskara Elkarteak Soraluzeko ahotsak proiektua 2010eko abendura arte luzatzea sinatu zuten. Herriko hizkera eta ahoko ondarea jasotzeko hitzarmena da hau. Epe horretan beste hamar hizlari elkarrizketatuko dituzte eta interneten ipini.

Juanito Galarragak irabazi du Bizikaleko zozketa



Galarragak hilaren 27ra arte du saria gastatzeko epea. 600 euroak 10 euroko errifetan jaso ditu Bizikale merkatari elkartearen dendetan gastatzeko.

Sabin Mendizabal Audientzia Nazionalean epaitua

Sabin Mendizabal soraluzetar gaztea atzo epaitu zuten Madrilgo Audientzia Nazionalean. Epaiaren zain zegoen momentuan aldizkari honek edizioa itxi egin behar izan du informazio gehiago jakin gabe. Albiste honen gertuko jarraipena www.plaentxia.com webgunean.

Udalak kale batzuen izenak aldatu ditu

Soraluzeko Udalak, Euskaltzaindiari iritzia eskatu ondoren, hainbat kale eta auzuneren izena aldatzea erabaki du. Grafiari dagozkion aldaketak izan dira, izena idazteko moduari dagozkionak, kalearen izena bera aldatu gabe. Horrela idazteak izango da zuzena: Estaziño kalea, Gabolats kalea, Gipuzkoa etorbidea, Errabal kalea, Errekalde kalea, Ezozibidea, Serafin Atxotegi auzunea, Sagarre-errea auzoa.

Osintxun azoka egin nahi dute azaroko azken astean

Osintxuko herritar talde batek jendea animatu nahi du azokan postua ipintzera. Nahi izanez gero, trukea ere egingo da. Aurrez abisatu behar da trodel@hotmail.com helbidean edo **648 012 804** telefonoan galdetu Andrea edo Jennygatik

Udalaren deialdia

Udalak kiroldegiko zerbitzuen zeharkako kudeaketa esleitzeko deialdia egin du. Arane kiroldegiko sorospen, kirol monitore eta sarreak kontrolatzeko eta harrerako zerbitzuen zeharkako kudeaketarako. Kontratu 2 urtekoa izango da 4 urtera luzatzeko posibilitatearekin. Izena emateko epea azaroaren 2an amaitzen da. Informazio gehiago: www.soraluze.net


Genero indarkeriari buruzko protokoloa aho batez onartu da

Hilaren 7ko ohiko saioan, Hemakumeen indarkeriari aurre egiteko protokoloa aho batez onartu zen. Horrela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun planak aurrera egiteko modua izango du, emakumeen topagunearekin batera. **Margoketak**

PNV-EAJ, PSE-EE, EA eta PP alderdiek mozioa aurkeztu zuten Soledad del Bosque zinegotzi sozialistaren etxe atarian egindako pintaketak gaitzesteko. Mozioa onartu egin zen berau aurkeztu zuten alderdien aldeko botoekin. Mozioak zinegotziarekiko elkartasuna adierazteaz gain, pintaketak "ekintza faxistak" direla zioen eta biolentzia gaitzetsi eta

ETAk bere aktibitatea behin betiko laga dezan eskatu zioten.

Itzaltze analogikoa

Bestalde, abenduaren 31n itzaltze analogikoa iritsiko da Debarrenera. Horri lotuta, LTDren (*Lurreko Telebista Digitala*) inguruan PSE-EEk aurkeztutako mozioa onartu egin zen. Modu honetan, pertsona nagusiek edo ezinduek hargailu digitalak eskuratu ahalko dituzte, lau urterako Estatuaren zesio bati esker. Hori eskatzeko, talde onuradunen baten baitan daudela frogatu beharko dute: entzuteko edo ikusteko ezgaitasuna izatea, 80 urtetik gorako pertsona bakarrik edo 80 urtetik gorako pertsona batzuekin bitzitea adibidez. 



80 urtetik goragokoez doan izango dute TDTa.

MARI MAR HARATEGIA
Gurean Euskal Herriko produktuak!
Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

PASCUAL CHURRUCA, s.a.
Hotzian eta beruan jotako tornilluak
Errekalde 21 20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

TXOKO KAFETEGIA
Kafe ederra hartzeko txokorik onena!
Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17

Lakuesta Optika
Ikusmen arazozen frogak eta argibideak
Parafarmaziako produktuak
Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

SAN ANDRES ITURGINTZA
Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak
Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

MENDIZABAL okindegia
Kalebarren 10 T. 943 75 20 91
Baltegieta 6 T. 943 75 13 99
SORALUZE

TXURRUKA JATETXEA
www.txurruka.com
943 75 15 81

MAPFRE SORALUZE ZERBITZUAK S.L.
Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal
Gabolatz, 5-8 Behea 20 590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jiibarza@infonegocio.com
Tlf: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10



**“Idaztia
zaletasuna dot.
Ez dot
argitaletxerik
bihar”**

Gehixago irakurri biharko genduke?

Bai, dudarik bare! Gutxi irakurtzen da eta gainera sarritan modan daren liburuak irakurtzen dittugu. Modan egotia baina ez dau liburu ona dala esan nahi. Liburutegixetan eta baita etxeko liburutegi txikixetan gogo haundiz irakurri leikezen liburu asko dare, baina ezkutuan! Honek hartu eta irakurri, izugarriko plazerra izaten lagundu leikizue eta!

Ze iritzi daukazu liburu digitaletaz?

Liburu digitalak ezin dira paperezkuekin alderatu. Paperian inprimatutako liburuak usaindu egin bihar dira, ikutu eta sentidu. Hori da liburu batek daukan xarma haundina. Hori da liburuak! ☞

2009: “VII. NAJI NAAMAN” NAZIOARTEKO LITERATURA SARIA “NOMEOLVIDES” IPUINARENGATIK.

2006: “XVI. EMAKUMEEN KONTAKIZUN LEHIAKETA”, “DE 6 A 7” LIBURUA ARGITARATU ZIOTEN.

2007: “ROSAS ROJAS PARA TI” IPUINA FINALISTA, 423REN ARTEAN.

2007: “XVII. CALAMONTEKO SARIKETA NAZIONALEKO ELEBERRI MOTZEN LEHIAKETA” “EL HOMBRECITO MITOLÓGICO” LIBURUA PUBLIKATU ZIOTEN.

idazle ona zarala esan nahi! Nik ipuin laburrak idazten ditudu eta ez dot argitaletxe biharrik. Normalian lehiaketetan parte hartu eta irabazi izan dotenian ipuina beste idazle batzuen lanekin batera argitaratu dabe.

Ohore haundixa izan bihar dau 800 idazle, 44 herrialde eta 22 hizkuntzetako liburu artian zeuria aukeratzia.

Sorpresa izugarria izan zan, sekulakua! “Nomeolvides” ipuin laburra, beste lehiaketa baterako gertatu neban eta honetan onartu ez eta Liba-nokora bidaltzia akordatu jatan. Horra hor emaitza! 800 idazlen artian neria aukeratu zeben eta e-posta bidez jakin neban irabazlia nintzala. Holako momentuak bizitzan gutxitan tokatzen dira!

Ate asko zabaltzen dindu saridun izatiak? Argitaletxiak, idazliak ezagutu...

Nik ez daukat horren biharrik, eta eskerrak! Ez daukat liburu bat idatzi eta argitaletxe batekin argitaratzeko gogorik. Neretzat idaztia zaletasuna da eta hola jarraitzia nahi dot. Nahi dotena, nahi dotenian eta nahi dotenaz idazten jarraitzia! Egunen baten oso zaila egiten bajata oingo moduan jarraitzia ez da ezer pasatzen, terapia egiteko erabiliko ditudu eta kitto!

Zure ipuina gaztelaniaz, arabiarrez, frantsesez eta ingelesez argitaratuko dabe. Jende askogana helduko zara, herrialde pilo batera.

Bai, kuriosua da. Pentsatzen jarriz gero, bildur pixkat be emoten dau. Zenbat jende, zelako jendia, nungua... zenbat bizimodu eta pentsamendu desberdinek irakurriko nabek! Idazten hasitakuan beti pentsatu izan dot: “zeinengana helduko da liburuak?” eta erantzuna topatzia oso zaila da! Nik ez ditudu ezagutuko baina berek ni bai, zatitxo bat bada be.

MOTZIAN

Idazle gogokuena?

Gioconda Belli

Liburu gogokuena?

La historia interminable

Istori laburrak edo eleberri luziak?

Istori laburrak

Poesia gustatzen?

Bai, asko!

Papera edo digitala?

Papera dudarik bare!

TERESA SOUSA COUTO

“Liburuak usaindu, ikutu eta sentidu egin bihar dira”

Idazlea, pedagogo eta irakurle amorratua. Ipuin laburretan arrasto handiko sentimenduak zabaltzearen zale da. Bere kontakizunen zaleak ere asko omen, 4 urtean 4 nazioarteko sari jaso ditu eta. Gozamina eta terapia, literaturzale honen eskutik.

Noiztik idazteko zaletasuna?

Umetan eskolako lehiaketa danetan parte hartu eta gehixenak irabazten nitudu. Idaztia beti izan da nere zaletasun haundinetako bat. Nerabezaruan idazteko zaletasuna alde batera laga neban, adin kontuak. Serixo idazten baina, oin dala 4 urte hasi nintzan, nere gizona ezagutu eta gero. Bera be idazle amorratua da, ni baino gehixago! Beregaittik hartu dot gogoz idazteko grina.

Zeren gainian idaztia gustatzen jatzu?

Ipuinetan barren-barrenian dakadzen sentimenduak idazten ditudu eta idatziko doten ipuinan gaixa nere egoera emozionalan araberakua da. Sasoi desberdinak bizi izan ditudu eta honek nere ipuinetan islatzen dira. Oin dala gutxi arte ipuin erotikuak idazten nitudu eta baita malenkonixia sortzen zebenak be. Gaur egun oster, umiendako ipuinak imajinatu eta sortzen ditudu, gero nere ogibidian erabiltzen ditudutenak. Umiekin terapia egiten dot ipuinen bittartez.

Beti dago arrazoiren bat: zertarako idazten dozu?

Nere barrua husteko, terapia egiteko. Barruan dakatena azaleratzen ahalegintzen naiz. Poesia be idazten dot baina hain da intimua, ez dau inork irakurriko! Terapia pertsonala da eta nik tratatzen ditudu umiekin be balio dosta. Nere gizona idazlia da baita, eta berakin be idazkuntzan bittartez terapia egiten dot. Maittasuna moduko gai bat etarazten dogu eta bakoitzak bere modura definitzen dau, ipuintxo bat eginaz adibidez. Hola sortu neban “Rosas rojas para ti” ipuina. Berak maittasun in-guruan idatzitakua gustatu ez eta nere definizian bittartez, 423 parte-hartzaileen artian finalista izan nintzan.

“Ipuinetan barren-barreneko sentimenduak idazten ditudu”

☞

“Umiekin terapia egiten dot ipuinen bittartez”

Zure liburuengatik sari potoluak jaso dozuz eta publikatu egin dotsuez. Horren zaila da liburu argitaratuko dotsun argitaletxe bat topatzia?

Zaila da bai. Argitaletxe haundixak, askotan, izena dauken idazle bakarrik argitaratzen dotsez eleberririk eta izena eukitziak ez dau

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Maltzaga, Soraluze, Eibar eta Elgoibarko udalerrixek muga egitten dabeneun da. Bertan dagan errotondia, trenbidia, estaziñua eta Delteco enpresia Eibarko parte dira. Hor inguruan zeren ermittia eta eskolia be Eibar ziran. Hortik hegoalderako dana, Soraluze da. Elgoibar aldera, mugia Saturixo etxera heltzen dan errekoa da.

Zure ustez, zeinena da Maltzaga?

BASILI ZUAZUA
Jubilatua



Neretzat Maltzaga Plaentxia da. Ni Aretxabaletan jaixua naiz eta urte mordua Eskoriatzan bizi izan dot, 1961. urtian Plaentxira etorri nintzazera arte. Horregaittik, herrixa bebestu eta gure lurrak dirala pentsatzen jata.

ONINTZA NARBAIZA
Etxez-etxe laguntzailia



Eibartar moduan, Eibarko lurrak dirala uste dot. Ez... serixo esanda, Maltzagako lurrak, gertutasunagaittik, Eibartarron lurrak dirala pentsatzen jata eta horregaittik dinot Maltzaga Eibar dala.

MIKEL ALBERDI
Erosketa saileko langilea



Nere ustez Soraluzeko lurren barruan sartzen da Maltzaga baina ez nago ziur. Dudatan nago, Eibarren, Elgoibarren eta Soraluzen artian. 3 udalerrri hauen mugia litzake Maltzaga. Baina etxian alde egitiagaittik, Soraluze dala esango dot.

JOSETXO ZUBIAURRE
Enpresariuxa



Maltzaga, Eibar, Elgoibar edo Soraluze dan eztaikit, baina aukera bat hartziarren Plazentzian alde egingo dot, beti herrixan alde!

KOMIKIXA



Herriko dantzariak Muttikoen egunean



Hilaren 11n herriko eta inguruko dantzariak Lapurdin izan ziren Arrangoitzeko Muttikoen egunean. Guztira 200 bat lagun bildu zituen jaiak eta goizean eta arratsaldean egin zuten dantza.

Kontzertuak Gaztetxean

Bihar gabeko 22:30ean Linned eta La Madrigeraren kontzertuak ikusteko aukera egongo da Gaztetxean.

Afari begetarianoa

Hilaren 25ean afari begetarianoa egongo da gaztetxean. Afal ostean, Eibarko Maite Arroitauregik "Mursego"-k biolontxelo kontzertua esakainiko du.

Iñigo Uribetxebarria Udako Argazki Lehiaketako irabazlea



Guztira 15 parte hartzaile izan dira Pila-pilean aldizkariak antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketan eta Kontrargi argazki taldekoek Iñigo Uribetxebarria azpeitiarraren argazkia aukeratu zuten irabazle. Zumaiako hondartzan ateratako argazki ikusgarria aurkeztu eta nekazal etxe batean asteburu-pasa bat irabazi du. Eskerrik asko Iñigo eta zorionak!

Gaztañerrek herriko baserritar gazteak bilduko ditu



Iaz egin zen moduan, aurten ere Gaztañerre Egunaren bueltan egitarau zabala antolatuko da. Azaroaren 7an herriko baserritar gazteek topaketa egingo dute. Azaroaren 11n berriz, Ane Albusuk hitzaldi bat emango du "Gure jantziak azken 100 urteotan: zer, noiz eta nola jantzi?" izenburupean. Azaroaren 13an, barixakua, talo ikastaroa egingo da Plaza Zaharreko karpan. Hilaren 14a izango da egun handia, Azoka eguna. Azaroaren 16an, Gaztañerre Egunean, EPAko eta AEKko ikasleek, eta Berbalagunek afaria egingo dute Ibai-eder elkartean.

Gaztañerre hildakoak omentzeko jaiak

Gaztañerre Eguna Arimen Eguneatik (azaroak 2) kontatzen hasita bigarren astelehenean ospatzen da. Antzinatik datorren jaiak da Gaztañerre. Familiek Arimen Eguna ospatu eta hildakoak omentzeko afaria egiten zuten. Gaztañerreko afariko menua honakoa izaten zen: gaztainak eta marraskiloak. Zergatik? Garai haietan sasoiaren sasoiak jaten zelako eta udazkenean herri ingurua gaztainaz eta marraskiloz beteta egoten zelako. Aurten Gaztañerre Eguna hilaren 16an izango da eta azoka, aurreko zapatuan, hilaren 14ean.

Iazko Gaztañerreko azoka



Astebeteh Sahara eta Soraluze bat eginda

Hilaren 2tik 10era bitartean Saharari lotutako egitarau sorta dotorea izan da herrian. Argazki erakusketa, tertulia, bideo emanaldia, henna tailerra, Senegalgo musika eta kus-kus dastaketa izan dira besteak beste. Arduradunak pozik agertu dira herrian egon den elkartasun keinuarekin.

ARRANO tabernia
etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua
etxera

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azkorbeberria Txurruka
K.Z. 20.000.752
HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK ETA PINTXO GOXO GOXUAK
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM Desing
Discinua eta Formena
Poligono Amillago, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17
Altzairuen fabrikazioa:
• Bainugelak
• Sukaldeak
• Horme-armairuak
• Barruko altzairuak

Antxintxika Krosa urriaren 31n izango da

Iazko parte hartzaileak izena ematen.

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Bergarako Antxintxi-



ka triatloi taldeak, Sorauluzeko udalaren laguntzarekin, Sorauluze eta Bergara lotzen dituen "Antxintxika Krosa" antolatu du. Urriaren 31n izango da eta 10 km-ko luzera izango du. Krosaren 5. edizioa izango da aurteongo. ☞

IZENA EMATEKO SORALUZOKO UDALERA JO BEHAR DA

- Hilaren 6tik 28ra 10 euro Kuadrilan (3 pertsona baino gehiagoko taldean) 25 euro.
- Proba egunean 15 euro. Kuadrilan 35 euro.

Body Balance eta Body Combat kiroldegiko eskaintzan



Body Combat-eko saioa.

Goizko zaindu eta gimnasia gegin nahi dutenek aukera zabala dute Arane kiroldegian.

Iaz, Pilates izan zen berritasun nagusia; aurten berriz, Body Balance eta Body Combat dira eskaintzara gehitu dituztenak.

Body Balance-ko klaseek ordu-tegi malgua dute: martitzen eta eguenetan 11:30ean, astelehen eta eguenetan 14:45ean, martitzen eta eguenetan 18:00etan eta astelehen eta eguenetan 19:00etan. Ordubeteko klaseak dira denak.

Body Combat astean lautan ematen da: astelehen eta eguaz-

tenetan 18:00etan eta martitzen eta eguenetan 19:00etan.

Hirugarren adineko jendea-ri zuzendutako gimnasia asteen hirutan ematen da: martitzen-eta, eguenetan eta barixakue-tan 10:00etatik 11:00etara bitar-tean. **Aerobic**-eko klaseak ere eskaintzen dituzte: astelehen eta eguaztenetan, goizeko 09:15eta- tik 10:15etara eta arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara bitartean. Kiroldegiko arduradunek jakinarazi dute, igerilekua urtarri-lean zabalduko dutela. ☞

EMAITZAK

FUTBOLA

Aretxabaleta K.E.-Sora(Erreg.) 1-1
Sora(Kad.)-Ikasberri..... 4-2
Aretxabaleta K.E.-Sora(Jub.) 12-1
Orioko-Sora(Erreg.)..... 2-2
Ilintxa-Sora(Kad.)..... 4-0
Sora(Jub.)-Arizmendi..... 1-3

PELOTA

Gonzalez - Beroiz..... 22
Retegi Bi - Laskurain..... 20

AGENDA

FUTBOLA

Zapatua 17, 15:30ean Unben Eibartarrak F.T - Sora (Erreg.)

Zapatua 17, 11:30ean Esatalan Sora (Kad.) - Mutriku txiki

Domeka 18, 11:30ean Argixaon Urola K.E. - Sora (Jub.)

ZORION AGURRAK



Markel Fernandez
Urriaren 20an 10 urte!
Muxu handi asko etxekoan partez, eta bereziki Alberto eta Cristina-ren partez!



Nora Mendia Altuna
Irailaren 30ean 5 urte!
Etxeko sorgintxoarentzat zorionak eta muxu asko!




Naia Intxaurbe
Urriaren 17an 4 urte!
Zorionak "panaderita"! Iraia, Jone, Miren eta familiakoan partez!



Peru Aristi urriaren 17an urtebete!
Unax Sudupe urriaren 29an 4 urte!
Martin Aristi urriaren 31an 4 urte!
Zorionak polittack eta muxu handi-handi bat maitte zaituztegunen partez!



Mikel Inurrieta
Zorionak txapel-dun!
Muxu handi bat etxekoan partez!



Amama, Aitor eta Domentx!
Urriaren 5ean, 13an eta 19an Zorionak! Urteak betetzen dituzuelako! Familia guztian partez muxu handi bat!



Irati Hernandez Muro
Urriaren 14an 2 urtetxoko!
Zorionak pittin!! Patxo pila bat June eta etxeko guztien partez!



Aiert Losada
Urriaren 19an 3 urte!
Zorionak bitxito!! Etxeko guztien partez.



Ane eta Marina Gabilondo
Urriaren 29an eta azaroaren 9an 11 eta 8 urte beteko dituzte! Zorionak eta muxu handi-handi bana etxekoan partez!



Iosu Perez Pinilla
Urriaren 21ean 4 urte!
Zorionak politta!! Bizitza alaitzen diguzulako, ez aldatu inoiz! Muxu handi bat!



Ariane Criado
Urriaren 10ean 8 urte!
Irea Rascon
Azaroaren 6an 5 urte!
Zorionak polittack!
Muxu handi asko Ikerren eta Gorkaren partez.

OHARRA


1960. URTEAN JAIOTAKOEN BAZKARIA
Hilaren 24an 1960. urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute Txurruka jatetxean. 13:30ean Plaza Barrizan elkartu eta poteoa egin ondoren, 14:30ean Txurrukara igoko dira. Antolatzaileek, hilaren 21a baino lehen izena emateko eskatu dute 943 75 15 81 telefonoan.



Ander Garcia Dos Santos
Urriaren 24an urtebete!! Patxo asko etxekoan partez!



Ugaitz Catalan
Urriaren 17an 27 urte!
Zorionak wapeton, familia eta lagun- en partez



Monika Muro
Urriaren 4an 37 urte!
Zorionak eta patxo asko, Markel, June, Inhar eta Iratin partez!!



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Indalecio Ojanguren



SAN RAFAEL ERMITTIA

San Rafael ermittia Maltzagan zeguan. Lehenengo harrixa 1927xan ipini zeben. Gaur egun autobus geltokixa dagan lekuan, atzian, ermittia zeguan. Aittatzekua da ermittia, Pablo Uranga artista gasteiztarraren freskuak apaintzen zebela. 1974an izan zan sute batek ermittia desagertu eragin zeban. Joakin Urramendi zan, esate baterako, San Rafael ermittako elizkoietakoko bat. ☞